



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

Bide-orria

2023 > 2026



ETHNO
PÔLE

Aurkibidea

Aitzin-solasa	2
Katixa Dolhare-Zaldunbide, Euskal kultur erakundeko lehendakaria	
Sar hitza	5
Johañe Etchebest, Euskal kultur erakundeko zuzendaria	
Adar estrategikoak eta helburu orokorrak	7
1 Bildu eta ikertu	8
2 Transmittitu eta komunikatu	11
3 Egituratu eta lagundu	13

Aitzin-solasa

Euskal kultura egun: konstatazioak eta zailtasunak

2020 eta 2021eko etxe-zokoratzeengatik, bi urtez gibeleratu behar izan den Ortzaizeko kabalkada azkenean iragan da 2022ko buruilean. Herritarrek dute osoki sortu karrikako ikusgarri herrikoi hori, euskaraz, Behe Nafarroako 816 biztanleko herri ttipian, eta bi emanaldien artean 2500 ikusle bildu dira. Kasik bi orenez, hamabost bat antzezleri aritu dira, Jokin Irungarai musikari eta aktore profesionala eramaile, ehun bat dantzari, Baigorri eta Garaziko dantza eskoletan formatu tokiko koreografoek lagundurik, eta Iparralai musika eskolan formatu musikariak.

Ortzaizeko kabalkada egungo euskal kulturaren idurikoa da. Kultura parte hartzailea, boluntarioz osatu elkarteetan eta amatur praktiketan oinarritua, zoinetan artista profesionalak erreferentziak bai eta dinamizatzaileak ere diren. Belaunaldiak, generoak, autoktonoak eta etorri berriak nahasten dituen kultura, euskararen inguruan. Kultura artistikoki aniztua, eskakizun handikoa kalitateari begira, eta publiko zabala hunkitzen duena. Kultura garaikidea, tradizio herrikoitik jalgia, baina belaunaldi berriek bereganatua sorkuntza dinamikaren bidez eta/edo etengabeko berrinterpretazioen bidez. Bere ondarea transmititu nahi duen kultura, baina helburutzat daukana ere bai galderak eginaraztea eta bere burua galdekatzea.

Bizkitartean, horrela definitu dugun egungo euskal kultura egoera ahulean dago. Geografikoki, agertzen da bereziki euskal herriko barnealdean, elkarteek hor lortzen dutelako biziarrizten engaiamendu suharrari esker. Prekaritate handian dago haatik kostaldean: hor, delako folklorismo batek hartu du haren tokia, eta askoz gehiago pairatzen du kultura uniformizatuaren konkurrentzia, merkatu trukaketen mundializazioak sustengatzen duen hura. Gertakari kulturalen, ekintza kulturalen, kultura beraren definizioaren uniformizazio masiboa –planeta mailako industria kulturalaren erraldioen bidez– iruditzen zaigu tokiko kultura herrikoia ahultzearen lehen arrazoa. Zentzu horretan, arrisku handia du euskal kultura, besteak bezala, kultura globalizatuan asimilatua izan dadin. Bestalde, praktika eta ekoizpen kulturalen uniformizazioak bat egiten du, orokorrean, norbanakoaren kulturarekin eta nor bere baitan hetsirik egotearekin, banakoa xedetzat daukan kontsumerismoak eragiten dituenak. Fenomeno hori euskal kulturaren ere nabari da: nekeak ditu kolektibo egoten, eta berrikasi behar du kolektiboki biziberritzen.

Euskal kulturaren baitako bigarren prekarizazio faktorea da kopuru apaleko eragileek dutela demografikoki sustengatzen. Euskararen egoera gainbehera doan bezala (hiztunen kopuruak biztanleriaren %15 eta %20 artean osatzen du, beherakadarako joerarekin), euskal kulturarena prekarizatzen da.



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

Eboluzio horren esplikatzeko, ohar gintezke euskara eta euskal kultura gero eta transmitituagoak baldin badira eskolan (ikasleen %43 sail elebidunetan eskolatuak dira, murgiltze saila barne), gazteek ez dutela baitezpada kalitatezko hizkuntza eta ezagutza kultural maila. Gainera, hizkuntzaren eta euskal kulturaren transmisioa familien baitan gero eta guttiago egiten da. Horrez gain, eskolaz kanpoko harreman guneak, zoinetan euskararen eta euskal kulturaren erabilera posible diren gutti dira. Azkenik, euskarak eta euskal kulturak pairatzen dute etorri berri frankoren ezagupen eskasaz: lurralde honetako bizi baldintzek ditu erakarri, eta ez dute beti horren hizkuntza eta kulturaren aberastasunaren kontzientziarik.

Elkarte munduaren eboluzioa ere kezagarria da. Boluntario kopuruaren eta inplikazioaren apaltzea, bereziki COVID19 krisitik geroztik, azpimarratu dute eragile kulturalak ELKARTUZ tailerretan. Administrazioaren konplexutasunak, ardura eskakizunen eta seguritate normen biderketak zailtzen dute boluntarioen lana eta interesatuak litezkeenak etsiarazten dituzte.

ELKARTUZ tailerretan ere agertu da euskal kulturaren ekosistema atomizatua dela. Elkartek ugari dago lurralde osoan baina harreman guttirekin elkarren artean. Bakoitza ari da bere eskualdean, bere aldetik, egiazko bateratze, saretze eta elkar laguntzarik gabe. Ondorioz, jakinez euskal kulturaren transmisioa segurtatzen dutenak direla bereziki elkarteak, besteak beste dantza, antzerkia eta kantu alorretan, lanjerrean iruditzen zaigu pedagogia amankomun eta praktika trukatzeko eskasez.

Euskal kultur erakundearen rola

Konstatazio eta zailtasun horiei begira, instituzio eta erakunde publiko bakoitzak ekiten du bere politika kultural eta linguistiko bereziaren bidez, doakion ekintza arloan, dauzkan ahalbideen arabera.

Horrela, Euskal kultur erakundeak rol berezia dauka euskal kulturaren sustenguan, instituzio eta erakunde publikoen ekintzak osatzeko.

Alabaina, Euskal kultur erakundea elkarte da. 175 kultur elkarte ditu bazkide, eta urtez urte, terrenoko eragileen ezagupen zabala lortu du. Hain zuzen ere, lehen mailako solaskidetzat daukate nahi dutelarik proiektu bat aurkeztu, edo eratzen hasi.

Euskal kultur erakundea solaskide nagusia da ere bere Administrazio Kontseilu kide diren instituzio publikoentzat, euskal kultura aipagai denean.

Idealki kokatua da beraz ararteko posizioan, harremanak erraztuz kultur eragile eta erakundeen artean, ikusiz instituzioen funtzionamendu eta dispositiboak batzuetan konplexuak izan dakizkiekeela profesionalak ez direnei.

Euskal kultur erakundea kultur eragileengandik eta horien beharretatik hurbil da: proiektuak egin ditzake haiekin, eta ez haientzat, eskubide kulturalen dinamikaren ildotik, manera parte hartzailean, erakunde publikoen politika kulturalekin lotura eginez, baina ekiteko askatasuna atxikiz.

Amatur praktikan ekiten du, oinarritzkoa dena euskal kulturean, laguntza maila biziki apalarekin (adibidez, doi-doia zonbait ehun euroko laguntzekin, hori aski baitzaio batzuetan kultur elkarte bati bere proiektua burutzeko); erakundeek, berriz, lehentasunez laguntzen dituzte artista eta egitura profesionalak.

Euskal kultur erakundeak, bestalde, ahalak dauzka bere ekintza kultural bereziak proposatzeko, bere erakusketak, bere bilketak, bere baliabideak balorizatzeko. Bere helburua da, horrela, horiek kultur esparruaren zerbitzuko ezartzea, horren aberasteko, eta halako gibelapen historiko, soziologiko, estetiko edo kritikoa hartzeko parada eskaintzeko.

Ondorioz, Euskal kultur erakundea gogoeta eta ekintza gune bikaina da, terrenoko eragile kultural eta erakunde publikoen artean. Posizio horrek eskatzen du partaide guziek onartu balore handitan oinarritua izan dadin, izan elkarte, izan erakunde: bata bestearenganako errespetua, adierazpen askatasuna, diskriminazio eza, humanismoa. Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren eragileei oro eskaintzen die beraz elkarrekin, kolektiboki hausnartzeko eta ekiteko xantza.

Euskal kultur erakundeak, orduan, bateragune rola osoki jokatu behar du, lurraldeko indar ezberdinak sinergian ezartzeko. Politikoki neutroa den bilgunea izan behar du, begirunezko eztabaida, entzute, saretze gunea, bai elkartearen artean, bai erakundearen artean, bai elkarte eta erakundearen artean ere. Bata eta besteen solasek eta funtzionamenduek toki bat aurkitu behar dute hor, eta elkar ulertuak izan beharko lukete.

Euskal kultur erakundeak bazkideak lagundu behar ditu hobeki ezagut dezaten elkar, errazkiago trukatzeko, hurbil egoten.

Euskal kultur erakundearen helburua partekatzen duten bazkideek atzeman behar dute horren baitan sustengu teknikoaren beren proiektuendako. Euskal kultur erakundeak, beraz, modu osagarrian aritu behar du bere Administrazio Kontseiluan dauden erakunde publikoen politika kulturei begira.

Bestalde, Erakundeak bere lurraldeko erakundeak eta kultur egiturak lagundu nahiko lituzke beren politika eta ekimen kultural berezietan poliki-poliki sar dezaten euskal kultura eta bere berezitasunak.

Ageri denez, Euskal kultur erakundea baitezpadako egitura da euskal kulturaren zerbitzuko, bere gobernantza bereziarengatik, bere ararteko posizioarengatik, eta ordezkatzeko duen indar kolektiboarengatik, herrikoia eta instituzionala dena, aldi berean.

Katixa Dolhare-Zaldunbide

Euskal kultur erakundeko lehendakaria

Sar hitza

2023-2026 lau urteko proiektuaren helburua da gorago definitu dugun euskal kulturaren sustengua, bereziki amatur elkarteek eramaten dutelarik, kontutan hartuz Euskal kultur erakundearen giza eta diru ahalmenak, eta muga teknikoak. Bere xedea da kultura anizkoitza garatzea, eskubide kulturalen errespetuan oinarritua; kultura erreflexiboa, nahasten dituen ondarea eta berritzea, ikerketa eta sorkuntza; zentzua dakarren kultura, galdeak eta eztabaidak bultzatzen dituen; bai herrikoia, bai kultura den kultura, parte hartzailea, belaunaldi artekoa; kultura inklusiboa, euskaraz hitz egin nahi duten euskaldunei zuzendua, baina erdaldunei ere irekia; kalitate eskakizun handiko kultura, amatur eta profesionalen bidegurutze; Hegoaldera begiratzen duen kultura, baina urrunago ere bai, ezberdintasunez aberasten dena; kultura zoinetan norbanakoa kolektiboaren zerbitzari den.

Proiektu honen anbizioa plan batean deklinatzen da. Plan horrek lehenagoko proiektuen egituraketa hartzen du, 3 ardatz independenterekin, baina hiru proiektu berritan oinarritzen da. Hauek pentsatuak dira euskal kulturak ezagutzen dituen erronka nagusiei erantzun hastapen bat emateko. Bestalde, plan hori eskubide kulturalen dinamikan oinarritua den metodologia baten arabera eraikia da.

Lehenik, lehen ardatzak – Bildu eta ikertu – euskal Etnopoloaren proiektu zientifiko eta kulturalari dei egiten dio. Bere helburua izanen da euskal gizarte garaikidearen bilakaerak aztertzea.

Ondotik, bigarren ardatzak – Transmititu eta komunikatu – azalduko du euskal kulturaren transmisiorako estrategia baten obratze kolektiboa.


Azkenik, hirugarren ardatzak – Egituratu eta lagundu – laguntza proposatuko die eragileei, elkarte ekosistemaren egituratzeko (ELKARTUZ proiektua), eraginkortasun eta koordinatze gehiago izan dadin ekintzetan, euskal kulturaren alde.

Norabide horiek lantalde profesionalak urte guzizosatzen duen kultura egitasmoa egituratuko dute.

Johañe Etchebest

Zuzendaria

2023>2026 egitasmoa



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

Ardatz estrategikoak

Norabideak eta helburuak

2023 > 2026



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



1 Bildu eta ikertu

Etnopolo labela ukaiteak unibertsitatearekin eta ikerketa munduarekin lanean aritzeko aukera eskaini dio Euskal kultur erakundeari, eta bereziki euskal kulturaren aztertzea.

Euskal Hiriguneak eta Garapen kontseiluak dioten bezala lurralde proiektu bat eraiki nahi bada gaurko jendartearen errealitateari adi egonez, honen iragan hurbila ulertu behar da.

2007tik hona bildu ahozko lekukotasunei esker besteak beste, euskal etnopolok ipar Euskal Herriaren azken 60 urte hauetako bilakaera sozialaren aztertzea gaitasuna badu.

Euskal jendartea azkarki aldatuz joan da eta, gaur egun, nahiz talde izpirituak biziri irauten duen, nork bere buruaren jabe eta aske egon nahi du.

Eboluzio hau ikertu nahi du etnopolok, bi elementuen bidez: hizkuntzarekiko jarrera eta plazetako adierazpen artistikoak. Taldearen eta pertsonaren arteko oreka zainduz, nola indarberritu dira euskara eta euskal kultura? Zein alternatiba xutik eman ditu jendeak, bere nahiak entzunez eta ez bakarrik arbasoenak?

Ondoko lau urtetan, euskal etnopolok adinetakoen lekukotasunak biltzen segituko du.

Eta aldaketa soziala neurtzen ahalko du, bilketa honetatik atera ezagutza buruz buru jarritz gaurko jendartearen errealitatearekin.

Hortarako, ondoko hiru ardatz landuko ditu.

Lehena, ondarea eta sorkuntzarena: nola kultura batek arraberritzen dakien, sorkuntzari irekitzen, belaunaldi gazteen behar eta gutiziei erantzunez.

Euskal Herriko talde adierazpen artistikoak azkar kanbiatu dira azken mende erdi honetan, izan dadin pastorala, gaur egun beste probintzietan ere ematen dena, edo ihauterietako edozein desfile edo antzerki.

Euskal mundua, etengabe, berrikuntzaren laborategia da. Plazetako kultura espresio berri hauetarik batzu ikertuko ditu etnopolok.

Bigarren lan ardatza ere oso ezaguna zaio euskal etnopoloiari: jendeak hizkuntzarekiko duen jarrera. Munduko bi gerlen arteko belaunaldiak bizi izan duen traumatismoa transmititu du bere haurrei.

Gaurko euskaldun belaunaldiek zailtasunak dituzte beste hizkuntz komunitateen artean harmonian bizitzen, ezagutuak izaten.

Euskaldun gisa bizitzea gaur, hautu baten ondorioa da, arbasoen ganik eskuratu ondarea baino gehiago. Euskararen erabilpenak atzo eta gaur, espazio publiko, pribatu eta intimoetan aztertuko ditu etnopolokoak.

Hirugarren lan ardatza, hau aldiz berria, kultura eskubideena... Bere lurraldeari konektatua nahi duen proiektu batek ezin du problematika hau bazterrera utzi. 2015eko NOTRe legearen 103. artikulua agintzen die bai Estadoari, bai kolektibitatei kultura eskubideen errespetatzea.

Euskal etnopolokoak lege honek Euskal Herriko praktika kulturaletan duen eragina neurtu nahi du. Kultura eskubideek kultura eragilean indarrak laguntzen, lauskatzen, biderkatzen ote dituzte? Eragile hauen proiektuak segitzen dituztenen paradigmaok aldatzen ote dituzte?

Hirugarren lan ardatz honetan, kultura eskubideen legeko ezagutzaren ondorio juridikoak, politikoak eta etikoak jorratuko dira, Euskal Herrian bereziki. 2022ko maiatzean EKE-ren baitan sortu CIFRE postua hortara dedikatuko da.

2023-2026 urteetako etnopolokoaren programa zientifiko eta kulturalak aitzineko lan ildoetatik segitzen du (ahozko ondarea, ondarea eta sorkuntza, hizkuntzak eta jendarteak), gogoeta sail berri bat irekiz (kultura eskubideena) eta beste bat momentuko bazterrera utziz (baliabide numerikoen erabilpena eta eskuragarritasuna).

Kolokioen eta mintzaldien bidez, ateak zabalduko ditu kanpoko esperientzia profesionalei eta ikerketa zientifikoei.



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

1 Bildu eta ikertu

1 | 1

AHOZKO ONDARE IMMATERIALA

- Ahozko ondare immateriala babestu eta lurraldeko biztanleak babeste horretan parte harrarazi.
- Bilketa etnografirako formatu.

Printzipioak / ekintza koadroak



Lankidetza instituzionala
Esperimentazioa
Prozesu parte hartzailea

1 | 2

ONDAREA ETA SORKUNTZA

- Azken 60 urteetako euskal jendartearen bilakaera ikertu, itxura bereziko adierazpide artistiko baten bidez.
- Museo baten eginkizuna galdezkatu.
- Galdera horiekin zerikusia duten ekitaldi zientifikoak antolatu.

Printzipioak / ekintza koadroak



Lankidetza unibertsitarioa
Alor ezberdinetako ikerketa

1 | 3

HIZKUNTZAK ETA JENDARTEAK

- Azken 60 urteetako euskal jendartearen bilakaera ikertu, hizkuntzarekiko harremanaren bitartez.
- Galdera horiekin zerikusia duten ekitaldi zientifikoak antolatu.

Printzipioak / ekintza koadroak



Lankidetza unibertsitarioa
Alor ezberdinetako ikerketa

1 | 4

KULTURA ESKUBIDEAK

- Kultura eskubideen ondorio juridikoak, politikoak eta etikoak ulertu.
- Adierazpide artistiko ezberdinetako oztopoak aztertu.
- Kultura eskubideen aldeko sentsibilizazioa egin eta baliabide juridikoak baloratu.

Printzipioak / ekintza koadroak



Lankidetza unibertsitarioa
Ekintza ikerketa



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

2 Transmittitu eta komunikatu

Ipar Euskal Herriko biztanleria anitz aldatu da azken hamarkadetan: bereziki, jende anitz etorri da Frantziako beste eskualdeetatik eta urbanizazioa masiboa izan da.

Kontestu horretan, euskal kulturak gero eta jende guttiago hunkitzen du lurraldean, elkar bizitzarako eta jendea nahasteko aproposa izaten ahal delarik.

Hori dela eta, kultura eragile frango sentsibilizazio eta transmisio mailan ari dira (irakasleak, elkarteak, artistak, toki dedikatuak...), baina bakoitza bere aldetik eta norberaren ahalekin arituz, anitzetan emaitzak mugatuak dira.

Elkarteekin plantan ezarria izan den ELKARTUZ dispositiboaren metologia jarraituz, Euskal kultur erakundeak transmisioaren eragileekin adostu euskal kulturaren transmisiorako estrategia bat koordinatu nahi du.

Lehen helburua ez da izanen erreferentzialen oinarri osatu bat eskaintzea, baizik eta eragile ezberdinek amankomunean dituzten tematikak identifikatzea, ondotik publiko moten arabera euskarri eta dispositibo egokiak deklinatu ahal izateko.

Transmisioa bitartekaritza eta sentsibilizaziotik haratago joaten denez, tresna pedagogiko horiek (eta beste batzuk) ibilbide batzuetan txertatuak izanen dira, interesatuek esperientzia anitza eta aberasgarria bizi ahal izan dezaten, eta Euskal Herriko biztanle sentiaraziko dituzten ezagutzak eskuratu eta emozioak senti ditzaten.

Ibilbide hauek instituzioek eta partaideek proposatzen dituzten dispositiboetan oinarrituko dira (Heziketa Artistiko eta Kulturala, formakuntzak...).

Bestalde, Euskal kultur erakundeak bere bitartekaritza tresnak (webguneak, erakusketak, bitartekaritza dispositiboak...) pixkanaka bideratuko ditu estrategia orokor horren zerbitzura jartzeko eta ibilbide ezberdinen abiatze plataforma izateko anbizioarekin.

Komunikazio estrategia ere proiektu honi egokitua izanen da, publiko ezberdinei Euskal Herri osoan zehar iragaiten diren kultur ekitaldien eskaintza berezi bat proposatuz.

Azkenik, Euskara dispositiboaren erdian izanen da.

Eskolatik eta formakuntzetatik kanpo bere praktika gero eta zailagoa izanki, estrategian garatuak izanen diren dispositiboan helburua euskararen erabilpenari zentzua ematea izanen da, aldi beran erdaldunentzat dinamika inklusibo bat garatuz.



2 Transmititu eta komunikatu

2 | 1

EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIORAKO ESTRATEGIA BAT ASMATU

- Euskal kulturaren ezagutza eta bizipen funtsezko nozioak eta gaiak zehaztu (oinarri amankomuna).
- Publikoen arabera deklinatu inimizazio eta sakontze ibilbide/moduluak proposatu.

Printzipioak / ekintza koadroak



Ko-ekoizpena
Esperimentazioa

2 | 2

BITARTEKARITZA DISPOSITIBOAK ETA EDUKI EDITORIALIZATUAK SORTU EUSKAL KULTURARI SENTSIBILIZATZEKO ETA HEZITZEKO

- Sareko baliabideak eskaini.
- Multimedia erakusketa ibiltariak garatu.
- Bitartekariak eta pertsona lagungarriak animatu ibilbideak eta aurkezpenak proposatu.

Printzipioak / ekintza koadroak



Zalutasuna
Ko-ekoizpenak
Kultura eta sormen industriak
Eko-erantzunkizuna

2 | 3

AKTUALITATE ARTISTIKO ETA KULTURALA BALORATU

- Euskal kulturaren aktualitatea hedatu.
- Kultura sortzaileen eta eragileen lana baloratu.
- Euskal kulturari buruzko komunikazioa garatu EKEk animatu sare sozial ezberdinetan.

Printzipioak / ekintza koadroak



Datu pertsonalen babesa
(RGPD)
Numeriko arduratsua



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

3 Egituratu eta lagundu

Elkarteak, lurraldeko indar biziak dira, Euskal kulturaren lehen sortzaile, hedatzaile et transmititzaileak. Biztanleak biltzen dituzten hainbat erritu eta ekitaldien antolatzaileak izanki, kultura parte hartzailearen bermeak dira. Kultura mota hori, Kultura eskubideen kontzeptuan osoki sartzen delarik.

Baina elkarten arteko konexio faltak, jakitate eta esperientzia partekatze eskasak, epe luzean haien eginkizunak eta izatea bera ahultzen dituzte. Bestalde, instituzioenganik ezagupen eskas bat bizitzen dute, horiek historikoki artista eta egitura profesionalak laguntzen baitituzte, bazter utziz praktika amaturra deitzen dutena.

EKEk bere 3. ardatzean, elkarte ekosistema hori lagundu nahi du, egituraketa eta elkarlanaren bidea sustatuz.

Hortarako, ELKARTUZ tailerrak, diagnostiko partekatu baten pausatzeko lekuak izan ondotik, elkar ezagutza eta solasgune bilakatuko dira elkartetako eragileentzat.

Horrela, egitasmo konkretuen egiaztatze espazioak izanen dira, arlo artistiko desberdinen dinamizatzeko helburuarekin.

Epe ertainean, alor desberdinen egituratze kolektiboen guneak dirateke, xedea elkarte munduko sare buruen eraikitzea delarik.

Eta epe luzean, Euskal kulturaren aldeko estrategia amankomun baten sortzeko lekuak bilakatuko dira.

ELKARTUZ denbora berean, eragile, erakunde eta egitura profesionalen arteko elkar aditze espazio bat izanen da.

Bestalde, EKEk duela zenbait urte proposatzen duen formakuntza eskaintza elkarten behar berriei egokituko da. ELKARTUZ tailerretatik aterako diren egituratze proiektuen berme izanen da. Profesionalizatze ibilbideak proposatuak izanen zaizkie artista amatur nahian. Eta elkarteak euskararen erabilera garatzen lagunduko ditugu, bereziki haien ekitaldien antolaketetan.

Bere deialdiaren bidez, EKEk elkarteekin partaidetzak sortzen ditu, haien proiektu desberdinen eramateko. Laguntza hori berrantolatua izanen da ahal bezain zehazki beharrei erantzuteko. Eta denbora berean, erakundearen dirulaguntzen osagarritasun emankor batean pentsatuak izanen dira.

Laguntza berezi bat ekarria izanen zaio literatura eta musika sorkuntzari. Halaber, artisten mugikortasuna bereziki lagundua izanen da ere, hego Euskal Herrira eta Europa osora errazago joan daitezen.

Azkenik EKErentzat, Euskal artisten hedapena lehentasun bat egoten da. Sorkuntza mota desberdinen katalogo bat osatua izanen da, erakundeekin partekatua izanen den barne tresna bat. Euskal Herriko programatzaileen gana joateko eta hedapen sarea azkartzeko aukera emanen du. Eta partaide desberdinen laguntzarekin, Euskal kultura, bere eremuetatik kanpo hedatzeko tresna izanen da.



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEAK
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE

3 Egituratu eta lagundu

3 | 1

EUSKAL KULTURAREN EKOSISTEMA EGITURATU

- ELKARTUZ : alor artistikoak egituratu kultura eragileekin.
- Formakuntzak eskaini elkarteen eta eragileen gaitasunak azkartzeko.

Printzipioak / ekintza koadroak



Ko-ekoizpena
Esperimentazioa

3 | 2

PROIEKTUAK SOSTENGATU ETA LURRALDEKO ERAGILEEN EKINTZA AZKARTU

- SORTU - Amatur sorkuntza sostengatu.
- PASA - Transmisio herrikoiko proiektuak akuilatu.
- HEDA - Lurraldeko gertakariak lagundu.
- MUGI MUGA - Artisten mugikortasuna erraztu hego Euskal Herrian.
- ERASMUS + - Eragileen mugikortasuna erraztu European zehar eta beren gaitasunak azkartu ere bai.

Printzipioak / ekintza koadroak



Zalutasuna
Lankidetzatza instituzionala
Lehenestea

3 | 3

EUSKAL ARTISTEN ETA KULTURA ERAGILEEN OBRAK HEDATU

- KATALOGOA - Erreferentziazko sorkuntzen katalogo bat asmatu.
- Ikusgarri bizidunak Euskal Herri mailan hedatu eta literatura zein musika sorkuntza sustatu.
- Euskal zinemaren obrak argitan eman.

Printzipioak / ekintza koadroak



Harmonizatzea



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



**EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA**
—
**INSTITUT CULTUREL
BASQUE**

WWW.EKE.EUS